



52. zenbakia ~ 2018-02-07

**KOLABORAZIO**

**HITZARMENEN**

**LEHENENGO PAUSOA**

**Feuse eta Gipuzkoako elkargoaren artekoa izan da**

feuseelkartea@gmail.com

www.feuse.eus

2017/52

**Farmaberi**  
FARMAZIALARI EUSKALDUNEN ELKARTEA

Pasa den Batzar Nagusian hartutako erabakietako bat, Elkargoekin harremana estutu eta haien kolaborazioa eskatzea izan zen.

Lehenengo hitzarmena Gipuzkoako Sendagaigileen Elkartearen eta Feuseren artekoa izan da. Helburuak farmazian euskararen erabilera posible egitea, euskararen erabilera sustatzea eta indartzea eta farmazialariek euskara bere

lantokietan erabiltzeko aukera zabalak izatea dira.

Horretarako, elkargoak konpromiso batzuk onartu ditu eta Feusek euren ekimenen emaitzen berri emango die urte bukaeran.

Hurrengo pausoak, Arabako, Bizkaiko eta Nafarroko Elkargoekin berdina egitea izango da. Datorren hilabeteetan emango dizuegu hitzarmen hauen berri.



# SENDABELARRAK

## Pello Iturria kideak sendabelarrei buruz Elinberri aldizkarian idatzitako testuaren laburpena

Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) arabera, landare bat sendabelarra izateko, organo batean edo gehiagotan eragin terapeutikoa duten osagaiak eduki behar ditu edo, bestela, sintesi kimiko-farmazeutikorako baliagarriak diren osagaiak. Erakunde horrek, bestalde, sendabelarren erabilpena biziki aholkatzen die munduko herrialde guztiei. Ardura horren adierazgarriak dira argitaratzen dituen sendabelarren gaineko dokumentu piloak (gomendio-arauak, kalitate-kontrola, kontserbazio-jarraibideak, segurtasun eta eraginkortasunaren inguruko ikerketak zein balorazioak, sendabelar askoren monografiak eta abar).



**ARTOA:** Artoa oso elikagai ona da. Bere irina erraz digeritzen da. Artoaren almidoia, bestalde, oso erabilia da farmazia- eta elikagai-industrian. Haziaren olioak gantz azido asegabeak ditu eta hiperkolesterolemiaren eta arteriosklerosiaren aurkako eragina du. Bide topikoan (azalean ematen dena, alegia), bainuetan edo kataplasmetan, erabiltzen da zenbait gaitzi aurre egiteko (ekzemak, iktosia, psoriasis, larruazaleko lehortasuna eta baginako mukosaren distrofia esaterako). Artoaren bizarra pixeragilea da, flabonoideei eta gatz potasikoak edukitzeagatik. Giltzurrunetako gutxiegitasun-kasuetan infusio horiek kontuz hartu behar dira .



**INTSUSA:** Euskal Herrian oso ezaguna da eta sendabelar gisa, askotan erabilia. Loreek dituzten flabonoideek, olio esentzialek, muzilagoek eta gatz mineralek eragin diuretikoak eta izerdiarazlea ematen diote. Haien infusioak arnasketaren gaitzen aurka hartzen dira, baita gripearen eta erreumatismoaren aurka ere. Infusioak lore lehorrekin egiten dira. Hosto freskoak eta fruitu heldugabeak toxikoak dira. Azken horiek goragarriak eta purgarriak izan daitezke. Fruitu heldugabeak, eta sustraien eta zurtoinen egosketaren ura hartzea toxikapen gehien sorburuak dira. Barne erabilpenerako, loreen infusioak, estraktuak eta tinturak bakarrik aholkatzen dira. Hotzeria eta gripearen tratamendurako esnez egositako loreak erabiltzen dira. Bestalde, loreen, azalaren eta hostoen infusioak, baita organo horien egosketaren ura ere, eztarriko gaitzak sendatzeko eta begien hanturak tratatzeko erabiltzen dira.

**GARRAISKA:** Sendagai gisa, hosto zein adar loreduen infusioak, tinturak edo estraktu hidroalkoholikoak erabiltzen dira. Aldehido, terpeno eta alkoioletan aberatsa den olio esentziala du. Jateko gogoa pizten du. Urdail-hesteetako espasmoak, hileko mina, meteorismoa, behazun arazoak, asaldur neurovegetatiboak, antsietatea, loezina eta zirkulazio arazoak arintzen ditu. Era berean, hotzeriaren aurka erabiltzen da izerdiarazlea eta baltsamikoa baita. Infusioak ere bainu lasaigarriak prestatzeko erabiltzen dira. Bestalde, ekimosiak edo ubeldurak tratatzeko landare freskoaz prestatutako konpresak erabiltzen dira, eta landare freskoaren zukua, berriz, intsektuen ziztaden aurka.

